

## Iragarpenak Anuncios

### Obra eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak Subastas y Concursos de Obras y Servicios

#### LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

IRAGARPENA, periferia hornitzeari buruzkoa, ertzain-  
tzaren informatika sistemari estekatu ahal izateko. 7760

#### OGASUN ETA FINANTZA SAILA (Kontratazio Batzorde Nagusia)

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarpena, Euskal Autono-  
mi Elkartearen zor publikoa bonoetan XXV. aldiz  
jaulkitzeari buruzko publikitate-kanpaina esleitzeko.  
(KBN 312/92 esp.). 7761

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO

ANUNCIO para el suministro de periferia para su  
conexión a sistema informático de policía. 7760

#### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS (Comisión Central de Contratación)

CONCURSO PUBLICO. Anuncio para la adjudica-  
ción de una campaña publicitaria sobre la XXV Emi-  
sión de Deuda Pública de Euskadi, formalizada en  
bonos (Exp. C.C.C. n.º 312/92). 7761

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

#### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2317

210/1992 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, toreatzeko  
eta toreo ikuskizunak emateko diren zezenen ustia-  
tegien erregistroa eta torearako ganaduen jaiotza-  
erregistroa arautzen dituen uztailaren 27ko  
181/1989 Dekretua aldatzen duena.

Toreatzeko zezenak hazteak eta ohizko toreo ikuski-  
zunetarako zezenak hazteak teknika eta produkzio mai-  
lan baldintza bereziak eta ezberdinak dituztenez, torea-  
tzeko eta toreo ikuskizunetarako diren zezenen ustia-  
tegiei buruzko eta uztailaren 27ko 181/1989 Dekretuz  
sortutako Erregistroa, bi sekzio ezberdinetan, hau da,  
aipatu diren ustiategien kategoria bakoitzaren arabera  
ko sekzioetan, egituratu beharraren komenigarritasuna  
ikusten da. Horrek ez du esan nahi Erregistroaren uni-  
tatea apurtu behar denik.

Horiek horrela, Nekazaritza eta Arrantza Sailburua-  
ren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak  
1992ko uztailaren 21ean egin zuen bilkuran aztertu  
ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— Uztailaren 27ko 181/1989 Dekretuko  
1. Atalburuko 1. atala aldatu egiten da. Honako era  
honetan geldituko da:

I. Atalburua. Toreatzeko eta toreo ikuskizunak ema-  
teko diren zezenen ustiategien Erregistroa.

1. atala.— 1. Toreatzeko eta Torea Ikuskizunak ema-  
teko diren Zezenen Ustiategien Erregistroa sortzen da.  
EAEren eremua hartuko du eta honako hau izango da  
bere egitekorik nagusia: Edozein kategoriako zezen

#### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

2317

DECRETO 210/1992, de 21 de julio, por el que se  
modifica el Decreto 181/1989, de 27 de julio, por el  
que se regula el registro de explotaciones ganaderas  
de reses de lidia y espectáculos taurinos, y el registro  
de nacimiento de reses de lidia.

Los especiales y diferentes condicionantes técnico-  
productivos que delimitan la cría de reses de lidia de la  
cría de reses destinadas a espectáculos taurinos tradi-  
cionales determinan la conveniencia de estructurar el  
Registro de explotaciones ganaderas de reses de lidia y  
espectáculos taurinos, creado por Decreto 181/1989,  
de 27 de julio, en 2 secciones diferenciadas para cada  
categoría de explotaciones contempladas, sin perjuicio  
de la unidad del Registro.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricul-  
tura y Pesca, previa deliberación del Consejo de  
Gobierno, en su sesión de 21 de julio de 1992,

DISPONGO:

*Artículo único.*— Se modifica el artículo 1 del Capítu-  
lo I del Decreto 181/1989, de 27 de julio, que queda  
como sigue:

Capítulo I. Registro de explotaciones ganaderas de  
reses de lidia y espectáculos taurinos.

*Artículo 1.*— 1. Se crea, con ámbito en todo el territo-  
rio de la C.A.P.V., el Registro de Explotaciones Gana-  
deras de Reses de Lidia y Espectáculos Taurinos que  
tendrá como función primordial la inscripción de

ikuskizun emateko diren ustiategi guztiak inskribatzea alegia.

**2. Bi sekzioetan egituratuko da Erregistro hau:**

**A Sekzioa:** Toreatzeko diren ganaduen ustiategiak inskribatuko dira bertan.

**B Sekzioa:** Torea ikuskizunak emateko diren ganaduen gainontzeko ustiategiak inskribatuko dira bertan, ohizko zezen ikuskizunak bereziki.

**3. Honako hauek utzi beharko dira erasota Toreatzeko eta Torea Ikuskizunak emateko diren Zezenen Ustiategiaren Erregistroan:**

**A Sekzioa:**

- a) Ganaduen jabearen edo zainaren izen-abizenak.
- b) Posta helbidea.
- c) Zezenak haren izenpean toreatzen denekoaren izena edo titulua.
- d) Burdina.
- e) Dibisa.
- f) Ganadua ustiatzen deneko finkaren edo finken izena, han kokatuta daudeneko udalerrien izenak emango direla.
- g) Behiak umea egin dueneko funtsaren edo funtsen izena.
- h) Perrak jartzeko erabili ohi deneko funtsaren edo funtsen izena.

f), g) eta h) baldintzak zuzendu edo gaurkotu egin beharko dira abeltzainaren deklarazio bidez.

**B Sekzioa:**

- a) Ganaduen jabearen edo zainaren izen-abizenak.
- b) Posta helbidea.
- c) Ustiategiaren izena.
- d) Ganadua ustiatzen deneko funtsaren edo funtsen izena.
- e) Animalia kopurua.
- f) Animalien identifikazioa.
- g) Animalien arrazaren deskribapena.
- h) Burutu diren osasun kontrolak.

**GEHIGARRIZKO XEDAPENA**

Torea ikuskizunak emateko diren eta Dekretu honetako 1. atalean ezartzen denaren ondorioz sortzen den Erregistroko B sekzioan inskribatu behar diren ganadu ustiategiei, dagokien inskribapena egin beharko dute, Dekretu hau indarrean jarri dadin egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan.

**AZKEN XEDAPENA**

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko uztailak 21.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,  
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

todas las ganaderías destinadas a espectáculos taurinos de cualquier categoría.

**2. Este Registro estará estructurado en dos secciones:**

**Sección A:** en la que se inscribirán las explotaciones ganaderas de reses de lidia.

**Sección B:** en la que se inscribirán el resto de las explotaciones ganaderas de espectáculos taurinos, en especial de espectáculos taurinos tradicionales.

**3. Deberán constar necesariamente en el Registro de Explotaciones Ganaderas de Reses de Lidia y Espectáculos Taurinos, los siguientes extremos:**

**Sección A:**

- a) nombre y apellidos del criador o ganadero.
- b) dirección postal.
- c) nombre o título bajo el que lidien las reses.
- d) hierro.
- e) divisa.
- f) nombre de la finca o fincas donde se explote el ganado, con expresión de los respectivos términos municipales a que pertenezcan.
- g) nombre de la finca o fincas donde tenga lugar el parto de las vacas.
- h) nombre de la finca o fincas que se utilicen para el herrado.

Los requisitos f), g) y h) deberán ser rectificadas o actualizados mediante declaración del ganadero.

**Sección B:**

- a) nombre y apellidos del criador o ganadero.
- b) dirección postal.
- c) nombre de la explotación.
- d) finca o fincas donde se explote el ganado.
- e) número de animales.
- f) identificación de los animales.
- g) descripción racial de los animales.
- h) controles sanitarios efectuados.

**DISPOSICION ADICIONAL**

Las explotaciones ganaderas de espectáculos taurinos que deban inscribirse en la sección B del Registro creado en el artículo 1 del presente Decreto deberán solicitar la correspondiente inscripción en el plazo de 1 mes desde la entrada en vigor de esta disposición.

**DISPOSICION FINAL**

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 1992.

Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,  
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.